




**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Indar Nuklearra, Lemoniz eta Garoña



Aizearen guraria

2013ko SARI LEIAKETA, Bigarren saria



Euskerearen edestia

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

INDAR NUKLEARRA, LEMONIZ ETA GAROÑA

Indar nuklearra arrisku aundiena da, Gizadi'ko zelatan, guda elburuaren ainbeste lantegietarako. Arrisku aundiena da au ta ez giro aldaketea.

JORGE GARAYZABALA

Ikusi dagigun Nobel sari bikoak, nuklear industriatzaz diñoena.

James Dewey Watson, Osakintza Nobel 1962, desoxirribo nukleiko garratz ADN molekula egitura alkar aurkitzeagaitik, plutoniotzaz berba egiten adierazo eban: "Gizonak erabiltzeko alegiña egin dauanak atomo arriskuetsuena da. Zatiki txikerrenaz biziena sortzen da. Bere erabilketa zabalduten Pu.´koa ba´da oldoztu bear dogu ondamendi izugarrietan -ezbearrez edo kiñatuaz- eragingarriak izan daitezenak Lurrekoa errialde zabalak bertirako ezin-bizi biurtu daitekezela", (The Preliminary Review of the AEG Reactor Safety Study; H. Kendall; 1974´garrengo Azilla).

Aitamen au ez dot aurkitzen Google-Internet´en. Euskal itsasaldeko ez Nuklearra Aldezpen Batzorde´koa lenengo Liburu Txostenean agertzen da, idazburuz "¿Hacia una Costa Vasca Nuclear? El caso de Lemoniz" (1977´garrenean). Dana dala James D. Watson oraindino bizi da ta berak doena egi ta siñisgarritzat emon daike.

Haanes Alfvén. Pisika Nobel 1970: "Kutsadura egindakoa pisiño-erreaktoez eragin arruntaz ziurtasun mailla bateko azpiko eztabaida izan al da, baiña abidan sartuten ba´da erreaktore bat, ondorioak izugarriak daitekez; ziurtasun neurri muturrekoak ondino artuten, gai erradiaktibo zenbaki itzala dana arrisku iraungarri bat osatzen da. Adibidez, aldakor politika edo gizarte aldietan, erreaktoretako erasoan edo sabotajeon ondamendiak al dira. Ganera, indarreko egitamau batean, pisiñoan oiñarrituta, ondakin erradiaktibo kopuru itzala alako laster biurtuko da gure planeta pozoitze bat egiñez". (Txostena bialduta Alaska´ko M. Gragell senadoreari, 1970´garrengo jorraillean).



Google-Internet'en agertzen da (PDF "Informe en torno a la programada Central Nuclear de Deva", 24-25 orrialdetan).

Bardiñean Nobel askoz geiago dago nuklear aurkakoa. Aitatzeta luzea izan liteke. Uste dot sendoenak dirala Watson'en eta Alfvén'en eritxiak. ¿Baiña adierazoten jaku ta ausnartzen plutonioko erabilketea edatuten ba'da, esangura dauela, Lurrekoa lurralde zabalak betirako ezin bizizko geratu daitezkeela ta gure planeta guztia pozoitu daitekela? ¿Eta au Osakintza Nobel batek eta Pisika Nobel batek esan dagikela?

Jakiña, ba dagoz, Nobel ugariak nuklear aldekoak be, baiña, eurak danak, ertsiki arrazoi ta zio ekonomiko eta edo indarreko-enerjetikogaitik eta ez dauz ezeztatuten eta guzurtatuten iñork Watson'en eta Alfvén'en baietzak.

Len, Euskal Itsasalde Nuklear aberasgarri bat az berba egin dot eta nuklear-etxea Iberduerok (gaur egun Iberdrolak) Deba'n (Gipuzkoan) asmatuten ebal.

Erreaktore bi 1000 Mw.o indar ezarritakoa bakotxa. Sartaldean kilometro gi-

txira, Ogella ondartzan, Ea-Isparter'en (Bizkaian), Iberduerok egin gura eban beste nuklear-etxe bat sei erreaktorez, 1000 Mw.o'etako bakotxa. Oneitara zenbatu izan bear ziran erreaktore bi Lemoniz'en, 930 Mw.o indar ezarritakoa bakotxa. Itsasaldeko 50 Km. gitxitan 10 erreaktore 9.860* Mw.o'z. Ludiko batze nuklear aundiena. Il arte jipoituak eta pozik !!!

Jakiña dan legez, Iberduero'ren asmo oneik ez ziran bete. Lemoniz ez zan erabiltean sartu ta bere gelditzeaz naspildu ta ondatu ziran Ogella ta Deba'ko asmoak. Asmoetan geratu ziran, besterik ez. Au Euskal Erri'koa garapen-mugarri bat izan zan eta Gizadi'rako adibide bat.

1982'garrengo garagarillan lanak gelditu ziran eta ez eben uranioa sartu erreaktore ia guztiz amaitutako Lemoniz'koan.

1994'garrengo lotazillako 30'eaz gelditze erabatekoa legezko ondorioetan sortu zan, Felipe Gonzalez'en Jaurlaritzan, Lemoniz (Bizkaia), Valdecaballeros (Badajozko) eta Trillo II (Guadalajarako), atzerapen nuklearraz.





Balio legez ekonomiko kitagarrirako egindako ezarpenetan, ezartzen dira 340.054.000.000 peseta Valdecaballeros´ko nuklear etxerako, 378.238.000.000 peseta Lemoniz´ko nuklear etxerako ta 11.017.000.000 Trillo´ko II batasunerako.

Zazpi urte lenago Iberduero enpresakoak Lemoniz´ko ezarpen beteak 310.410.peseta milloi izan ziran eta aldi onetan balioa auditu zan 67.828 milloietan. Kopuru ez nolanaiko ziztriña, adierazoten danez zazpi urtetan 22% geigarrituz.

Lemoniz´ko nuklear-etxea-gaitik ETA´ren ondorioz- 11 ildako izan dira.

ETA´koek nuklear-etxeko iru langille il ebezan lerkai estandaz: Andres Guerra, Alberto Negro ta Angel Baños.

Eta bi asmatzaille-buru, Angel Pascual, erasoan eta bestea, Jose María Ryan, baitu ta gero, bere aginpide aurrean.

Bere aldez, sei etarrak il ziran: David Alvarez Peña, tiroketa batean Guardia Civilaren aurka, nuklear-etxeko eraikiñetan sartuteko alegiñak egiten ebazanean. Eta lerkaiak ero-nari estanda eginez, tximistargi dorrearen aurka erasotera joiazanean: Jose Javier Aleman, Jose Javier Valencia, Antxon Tolosa, José Ricardo Barros eta Angel Fernandez.

Transformadore ta zuzentzako zutabe tximistargi, idazgela ta Iberduero´ko beste eraikin batzuetako sabotajeak, 300 kopurura igon ziran, tximistargiko enpresa barrietan 2.000 milloi peseta baño geiago sortu ziran garrantziko kalteak.

Eta Gladys del Estal ekologista kidea be, guardia civil batek il eban tiroz Tudelako (Nabarra) agerkunde batean.

Izan be, ondoko Bergara´ko Ibarzugaztian, Ebro´ko ertzetan, Argedas eta Tudela artean, Iberduero S.Ak asmatu eban beste nuklear-etxe bat ondatu zan.

Eta zaurituta geratu zan, 10 urtedun umea, Alberto Muñagorri, begi bat eta anka bat galdurik, Errenderia´n, (Gipuzkoa) Iberduero´ko idazgela baten ondoan ipiñitako lerkai-fardel bateri ostikada emon eutsonean.

Izen oneikaz geitu bear da 7 urtedun neskatoarena, Maria del Carmen García, 1975´garrenge bagillako 26´an il zana, Lemonizko urian Iberduero-ko asmatzaille batek berebillez zapalduta, nuklear-etxera joala.

Ezin da aitatu barik itxi ETA´ko ta Lemo-niz´ko gomutean Jose María Portell Mansoren erailketa 1978´garrengo bagillako 28´an Portu-galete´n (Bizkaia).

Portell, España´ko Jaurlaritzako isilleko ajen-te lez salatua izan zan. Liburu bi ETA´tzaz idatzi ebazan: "Los hombres de ETA" (1974)! ta "Eus-kadi: Amnistía arrancada" (1977).

Jose Maria Portell Bilbao´ko "La Gaceta del Norte" egunerokoan idazle-burua zan eta Bil-bao´ko, "Hoja del Lunes"eko zuzendaria.

Bere erailketa burruka nuklear-aurkarako zo-ritxar gorgor bat izan zan. Portell nuklear-aur-kakoa zan, baiña nuklear-aurkakoa gogotik, ba bera izan zan La Gaceta del Norte´ren orrial-detan onartu ebazanak, 1974gn. eta 1975gn. ur-tetan, Franco´ren bizitzan, eta Euskal Oligarkia Kapitalista Industriala goigoian egoala, ez zan ausartzen iñor egitearen alde ta Lemoniz´ko nuklear-etxeke lanak asi ziranean -1972´garre-nean asi ziran- berak onartu ebazan Gazeta del Norten indar nuklearraren eritxi aurkakoak Ipar Sail (Asociación Española para la Ordenación del Medio Ambiente) AEORMAk lagunduaz. Ernemiña izan zan gerokoa izango zan Euskal Itsasaldeko Aldezpen Batzorde Ez Nuklea-rra.


Ganera, Portell´ek bere izenpez idazki kritikoak indar nukleare-tzaz idazten ebazan La Gaceta del Norte´n. Eta beluago, Hoja del Lunes zuzendari lez, eztabaida bat ezarri eban, bere erailketa baño bi ta iru illabete lenago, indar nuklearratzaz geienez eta Lemoniz´ko nukler-etxeaz berariz, eztabaida orren bidez notin askok nuklear kaltegarri eta arriskugarriaren ezaguera artu eben. Niri idazki batzuk argitaratu eustazan, alan da be batean mingots eta gogorki Iber-dueroren aurka ekiten neban.

Erreaktore nuklear batean estan-dea eziña da (estanda atomikoa, ziza nuklear klasikoa eratzeaz), izan ezik "breeder" erreaktoreak edo birsortzeko las-terrak, eurretan ekai fisiogarri, Pu 239, sortzen

dana, erretzerako premiñazko baño geiago. Erreaktore "arrunta" batean estanda eziña da, berean ezin dalako ore preminazkoa estanda ato-mikoa sortzen, Erreakziñoa katean geldi da, ta ez da erreakziño nuklear bat ikertu barik. Baiña gauza bat askoz txarrago daiteke, "meltdown", edo gun pusiñoa. Oztu eskasgaitik, bero mailla millakaz, urtzen da, idrojenoa metatuz estandak dagoz, erreaktoreko euste eraikiña kraskatzen da ta irradiatua kanpora urtetan dau, eraginez lu-rraldeko luze-zabal bat ondakin erradiaktiboz kutsatua geratu ta ezinbizia betirako.

Chernobil´en (Ucrania) jazo zana da ta Fu-kushima´n (Japon), Kilómetro laukoetako eunka edo millaka luzezabal batzuk, ezin-bizi mendetarako dira. Ta milla-eunka tokiz alda-tuak egon arren, eunka notin batzuk biurtuta, baztertu gune oneitan bizi dira. Euren buruak il gura ba´dabe or konpon. 76 uri ta basauritara biurtuak izendatuten dabez Ucraina´n "siamo-soli" uri lagatuak.

Jarraituko dau



EUSKEREAREN EDESTIA

*Euskerazaleen 2013'ko
Euskal Astearen Itzaldia*



A ita Santi Onaindiagaz lagun lez eta bere aolkularitzagaz gizarteko ikasketetan buru belarri sartuta nengoela, antziñatik ibili nintzan keskatuta ulertu ezinik, gure Agirretar Jose Antonio-ren jaurkintzazko kideak kristau sutsu lez, Aita Santuaren etxera joanda, zergaitik onek zarratu eutsoezan Aitaren Etxe Nagusiko ateak, errepublika edo legearen alde kokatu ziralako, *okerreko bidean kokatuta zoiezelakoan*, esanda.

Ulertu eziñezkoa zan nirentzat, neure sendi, auzo, lurralde ta Euskalerrri osoaren sinismena ikusita, danoren Aita Ona ta Aita Santua zanak, Euskalerrriko ordezkari edo seme zintzoenak ziranai ateak zarratzea.

Arik eta aundizale batzuk ibili ziran *katolikotasunezko aberrikerietaren* zentzuzko jakintasunean sartu arte, ortik aurrera ondo ulertu nebalako, norkeriz asmatu eben katoliko *aberkeri orreik*, Jainkoak bizitzarako bereztu eban Izadi au, daukazan zentzu aundiko ta *alda ezin diran legezko* edertasunaren aurkakoak zirala.

Or susmatu neban, Euskalerrriak zeozer edo kez karen bat eukala bere izaeran, euren asmoak nekarazi edo aspergarritzeko.

Urretik begituta be eneban uste, Euskalerrriak bere zentzuzko izaeran ta barnean baituta euki eban askatasunezko demokraziaren izatasunagaitik izango zenik, eta zergaiti orregaz arduratu nintzan buru belarri.

Oarrez eta entseguka, lojikazko azterkuntz onetan sartuta⁽¹⁾, urte batzuk badira, jakin nebala zelán, 325eko urtetik ona Nizean, Jainkoaren izenean erabagitu zala Erromatar kaisartza ori, eta edesti guztitik iraingarri⁽²⁾, zelango odol jariozko kalteak ekarri euskuzan, guda indarrez *katoliko menperatzaill batzangoaren* asmo orreik ezarri naian.

Zergaitik ?:

Jainkoa Berak, izadi oneri bereztu eutsoezan legeakaz, eta bereiztasunezko askatasunez sortarazi eban gizadiai, eragilletasunaren arduradunezko almenagaz izateko irasi euskulako. Ludi onek daukazan berezko legeakaz, esaten dauan lez.

Eta gizarte orreik, berezko ta bereiztasunezko aztura bidean nortasundutako erriak jaio baziran, guztiz aurkakoak dira norkeriz irasi diran katoliko batzangotasunaren zentzuzko asmo orreikaz.

(1) Oarrez eta entseguka, lojikazko azterkuntz onetan sartuta = *apropósito y empíricamente, innesmo en esta investigación lógica.*

(2) Iraingarri = *muy ofensivo.*

Mundu onetan orregaitik gaur, guda-
ren arau bidez aleman, italiar, espai-
niar, frantzez eta abarrezko gogoetan
laterritutako European, gaiñean dau-
kaguzan kaisartzazko arrano aun-
di orrein eraso zital gogorrari aurka
egiteko, berezko errigizarte lez alegiñ
aundiak egin bear doguz, Jaungoi-
kuak ipinitako Legeakaz bizirik iraun
gura ba dogu.

Zer egin ?:

Alde batetik: gure Euskalerriko bizia-
ren aurka dagozan alegiñak gelditzeko,
zentzun aundiko egiak edo ta edestia-
ren ziurrezko barri ugariak bear doguz.

Bigarren: *erromatar katoliko merkan-
til kaisar menperatzaille* arrano aundi
orrek guzurragaz ainbesteko gerizpe
aundia egiten dauan lez, eskubidearen
argibide guztiak biztuta bear doguz
zalantza barik, eta artean gure Eus-
kerazale eta Euskerazaintzaren al-
karteak daukiezan aldizkariak beste
askoren artean bear dira, Euskalerria,
abertzaletasunezko sugar eta zuurta-
sunezko argi barik geratu ez daiten.

Irugarren: Gure euskerazko gorpu-
tza gaztelanizatu ez daiten egin, gaur
*gure arteko alperkerigaitik igarri
barik egiten gagozena*, euskal sena-
ri laguntzeko, euskereagaz arduratu
ta zaiñ egon, gure aurreko jakitunak
egin eban lez: erriko jakitunen batzar
edo bazkun antzera irasi ebazan *Eus-
kerazaleak, Kardaberaz* edo ta euren
ondorengo jaio zan Euskerazaintzaz-
ko talde lakoak bear doguzelako, ar-
dura orreik Euskalerrri osoarenak izan
da, Euskaltzaindiak bera bakarrik
ezin dabezelako eroan.

Danak elburu bakar ta batera baiña,
buruan kiriotzaren⁽¹⁾ amaierak, euren
bat egiteko alkartasunean egiten da-
ben antzera.

(1) *Buruko Kiriotza = conexión sináptica del sistema nervioso en la cabeza y cuerpo.*

Gaur zoritxarrez, Gaztelera eta Frantzez izkuntzak gureak be ba
dirala entzuten dogu, eta ez da olan iñundik iñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelera, orduko Burgos ta Kantabria bitarteko euskaldunen ar-
tean, eta erromatarrak ekarri eben menperatzaillezko latiñakin,
guda mende bidez euren artean aituteko sortu zan latin kumezko
mintzadar bat baño besterik ez da, gure euskal iparraldeko Gas-
koi, Asturiasen bable, Nafar egoaldean ta Aragoi ipar bitartean
nafar-aragonesa edo gaurko katalan izkuntzak sortu ziran, Afri-
ka, Asia eta Europa osoan ainbat latinkume sortu ziran antzera.

Latiñ kume orreik ez ziran izkuntzak, euren arteko arazoetatik
urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako
mintzadar batzuk baño besterik ez, ta orregaitik ez dira jende-
kuntzazko izkuntzak.

Beste gauza bat da, Erromatar katoliko menperatzaille onek, be-
rezko erriak katolikotasunean batzeko eta berezko erriaren izkun-
tzak ezereztuteko, 2.000 urtetan latiñagaz berezko mintzoeraren
aurka ibili dabezana debekatuzko leentasunak, euskerea ta berezko
izkuntzak ezereztu egiezen.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko azkuntza bidean
ulermenezko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, eu-
ren senezko tresneri biurtzen dalako.

Euskerazko azturan, gure bizitzazko *euskaldun ama* izendatu
gendun, eta beren izena artuta, *euskal nortasunezkoak* biur-
tu euskun. Eta orreik dira jendekuntzazko erri ta izkuntzak
izatea⁽²⁾.

Euskerea, euskal nortasuna da ba, gure sen ta sendiaren arduradu-
nezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean
betetan badoguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago eukiko
doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri
ulermeneko erantzun eder bat emonekuak diralako, eta norta-
sundutakoak alkartuta ulermendu gaitezen, *gai izadi* onek bear
dauan eragilletasunezko arduragaz.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orreik, ez.

Gure euskal arbasoak euren azturazko ikasketetan, gauza guztia-
ren izenpetasunak izaerazko bidean oituraz, askatasunaren de-
mokrasiar zentzuan lur ta Jainkoari begira egokitu ba ebezan,
gure barnean baituta gero, ez dira errez zentzu aundiko irarketa
orreik gain marratu edo aienatu egingo, eta beti gogoratuko do-
guz begirameneko lots aundiz *legezarrak* lez, gure eginkizunak
euren zentzuzko izatazunean barneratuta, daukagun baitak alan
bideratzen dabezelako.

(2) *Jendekuntzazko izkuntzak = idiomas culturales, o, creados a través del propio conocimiento de esta naturaleza vital.*

Or, agerzen gara *egizkoak*, Oreja'tar Martzeliñok esaten dauan lez: *Euskaldunak edo ta ETA'koak egia esaten dabelako beti.*

Orregaitik dira nortasunezkoak Jendekuntzazko izkuntzak, gure Euskalerrian gaur arteko azturan eta arbasoen mintzazko senetik eginekoak, beti lez on zentzuzko oituran gogoratzen doguzanean, irudimenduta agertzen doguzelako gure gogora ikasitakoak, euren zentzun ta ekanduzko izatasun ederrenean.

Guzti ori eukiko ete dabe, guda indarrez ta menperatusnezko ekintzan sortutako latin kumezko mintzadar orreik ?.

Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, mundu onen gizadia berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dauz, dannon arteko ulermenak parean ezarri ondoren ta eurak aurkeztuta dagozenezan bardinduz, egin bear doguzenak, erabagi onaren erantzunak edo Jainkoaren legezko arrazoi inguruakoak izan dai tezen alegindu bear garalako.

Beste gauza bat da, norberen sasi ulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik ez ezer, norkerizko alegiñetatik kanpo.

Orain goazan jakitera, zelango lurraldeetan egin zan gure euskerea, eta berak euken zabaltasunetik, zergaitik murriztu ziran euskerearen eragipeneko zabaltasun orreik, gaur gagozan zazpi lurralde onetan kokatuta geratu arte.

Neandertal Omosapiens.

K.a. orain 500.000 urte inguru, Europari, beren lurraldetara sartu ziran lenengo gizarteak egin eutsoen, Neandertalak bakarrik geratuta, *Wurm* deritxon azkeneko izotzaldi ostetik.

Neandertalak, orain 100.000-50.000 urte bizi ziran.

Oso luzea izan zan aroaldi au, eta bitartean ainbat motako giza seme sortu ta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.



Omosapiensen zabalkuntza.

Omosapienseko giza, 15.000-10.000 gorengo Paleolitikoaren asken⁽¹⁾ denborak edo Arri Aroko aldiak zirenak, izotzaren urtzean, Afrikatik urtenda, Asia ta Europara zabaltzen asi zan euskerazko edo euren leen izkuntz, eta oiñarrizko oitura bardin bategaz, Atlant Itsasotik Ekialdeko India-raiño.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain K.a. 10.000 urte ingururarte.

Aldi onetan esaten dau On Mielek, Euskaldunak artu ebela gaur daukan giza itxura⁽²⁾, edo Kromañoien itxuratik gaurko itxurara aldatu zala, Paleolitiko Neolitiko bitartean edo mesolitiko aldi onetan.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak baten asi zan.

Omosapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan, eta orren ondorioz bizi leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen, len iriak sortuta.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen, eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

K.a. orain 9.000 urte asi zan Neolitiko aldia Ekialde Urbillean, ta European 6.000 urte inguru, Ekialdekoak, denbora giro beroagoa eukiteagaitik, 3.000 urte aurreratuta aurkeztu ziralako.

(1) Gorengo Paleolitikoaren asken denborak, edo arriaro'ko aldiak zirenak, onantza asita.
(2) Euskaldunai, Euskal izkuntza eta bizi zan inguruakegin eutsolako gaur daukagun itxurarekin



Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran, eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturana.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu Omosapiens edo kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturana oituratzeko euki eben izkuntza, **len ereduko euskerea zala** Afrikan, eta Atlant Itsasotik Indiaraiño.

Alan dala esan leike: jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda zein direzan, **euskerea**, asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragoakoa izanda, galdu egiten jakielako, eta orregaitik, beste izkuntzetan bere oiñarrizko itzak euki bear, **euskerea** Omosapiensen leen ozenezko itz edo abots´etik datorrena dalako.

Nungo lurraldeetan nortasundu ote zan Euskerea ?.

Atlant itsasotik, Alemaniako lurraldearen erdiraiño, eta Eskoziatik erdi ugarte onen Ispalis´eraíño⁽¹⁾.

Zer gertatu ote zan baiña Ekialdetik, gizartearen zoriontasunak mingostasunezkoak biurtu zitezen ?.

Ekialdeko giza eguraldi epelagoagaitik, 3.000 urte aurreratu zala, eta Eneolitiko edo arri alditik tupiki eta burdiñaren bitarteko aldietan⁽²⁾ norkeriaren menperatzailletasunezko alegiñetan batzuegandik asita, bakezko irudimena apurtu egin zala odoljariozko irudiagaitik aldatuta.

Eta Jainkoari ta bereztasundutako Izadi onen lege bidean azturaren zeregiñetakaz lortu ebezan nortasunaren jendekuntzazko izkuntzak, lokaztu egin ebezala, norkeriaren bidetik bereztasunezko erritartasuna,

ainbat nortasungabeko zatitan bananduta, ondorioz izkuntzarekin sortu zan bezela, eta gero Europan sortuko zan antzera.

Baten bateri, irudimenduko jako zer ote esangura izaten da, Babeleko-Dorrea aipatzen danean ?.

Zelan asiko ote zan murrizten euskerearen izkuntzazko jabetza gaurko lurraldeetan geratu arte ?.

Paleolitiko-Neolitiko aldiko urteen ostetik, euren leiñuzko batzarrekin askatasunezko demokrazi ederrenean ezarrita, Europaren ekialdeko trebeenak asi ziran nortasun eta norkeriaren zalantzazko ekintza bidetik euren salerosketakaz. Edesti osoan nor geiagoren gogortasunezko leian amaierarik ez dauena euki, gaur gagozan maltzur eta guzurrezko egokitasun txarrean agertu arte.

Edestiko denbora guzti onetan gaur arte, ezin besteko giza egipidearen bidetik, amaibako lege ta erabagi artu dira, baiña

(1) Ispalis = Sevilla. (2) Tupiki = edad de bronce y posterior hierro.

beti *norkeriagaitik gainheratuta*. Ez ote zan elduko, konturatu gaitezen *ordua* ?.

K.a. 2800 urte ingurutik asita, Lurrarteko Itsaso onen bazterretan Grezitarrak euren Uriak irasiz gain, beste lurralde batzuetan be irasten ebazan saleroketarako Uriak, erdi ugarte onen itsas bazterretara be elduta euren ekoizte edo mozkiñakaz.

K.a. 2000 urte ariñago, Keltiarrak ekialdeko arazoetatik aldenduta agertu ziran Alemaniako lurraldeetan.

K.a. 1800-1600 urte artean, Eskozia⁽¹⁾ eta Britaniako Ugarteetara eginda euren leenengo erri alda.

K.a. 1200-800 urte artean, Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara, Frankoak Loira ibaiaren goialdean kokatuta.

K.a. 1100eko urtetik onantza, Etruskoak be bardin, Italiako Arno ta Tiber ibaiaren bitartean kokatuta asi ziran euren salerosketetan.

K.a. 1000 urte inguru eta Arabia Saudiko lurraldetatik mauritarrak asi ziran antolatzen eta zabaldua gero 711 garren urtean erdi Ugarte onera etorri ziran eta bertan be, eurak egin ebezan menperatzailletasunezko ekintzakaz euskerearen lurraldea be murriztu eben.

Eta K.a. 900-500 urte artean, Allstatt deitzen jakon burdiñezko asierari eta Alemaniaren Egoaldean Renaniako lurraldetan kokatuta egon ziranean, Keltiar jendekuntza⁽²⁾ Europaren Sarkaldetik zabaltzeko gertatzen asi zan.

K.a. 814 Fenizioak Siritatik zabalduz, eta Afrikan Kartago sortu ebenetik⁽³⁾, Ispalis, Betika edo Kadizeko itsas bazterreara be etorri ziran, bertan euskal Tarteso ta Turdetanoak egon zirala.

K.a. 753ko urtean Etruskoak Erroma kuadrataren gudalozteak irasi ebezan, eurak euki zituzen saleroketarako uriak babestuteko, gero danok dakiguna egin ebezanak eginda, aurrean agertzen ziran dan guztiak iruntzi gurean, Afrika, Asia eta Europaren lurraldeetako erri ta izkuntzak lokaztu ebazanak.

K.a.VIIIn mendeen artean, Tene deritxon goi maillako Keltiar jendekuntza egin eban zabalkuntzagaz, Europako lurralde guztietara eldu zan.

K.o.325eko urtean Nizeako Eleiz Batzar Nagusia egin zan, munduko erri guztien batzangotasuna lortu gure ebena, latiñezko izkuntzarekin euren naierara bideratzeko.

K.o. 711ko urtean mauritarren sarraldia erdi ugarte onen ego murretetik Europara.

K.o. 1035eko urtean Nafarroako IIIIn Santxo Aundiak, beren eskuetan euki zituzen lurraldeak, etan euki ebazan iru semeen artean banandu ebezanen ondorioz, Euskalerra, gaur gagozan lurralde txikerretan geratu gintzazan.



Ondoren, katoliko ta antzeko erlijio faziztaren eritzikoak, Europa, Asia eta Afrikako lurralde geienak morroipetu ebazan euren sasi jainkotasunezko eritziekaz, eta eritzi orreik lortzeko, bizitzeko bear doguzan guzta guztiak euren kotrolpean batu ebazan, gudalozte ta merkantilerkiaren laguntzarekin.

Baiña, morroipekotasunaren aldeko fazizta orreik ekintza orrekin, dana eurena dala uste dabelako, or gure artean gaurko lapurkeri ta diru zalekeriak.

Ikusten dogun lez, Euskal edo ta beste berezko erriak, berezkotasunaren oituran ulermendutako nortasunak, lortu eben askatasunezko demokraziegaitik baituta, sekula ez ziran inor menperatzera joan, eta mapa onetan ikusten dogu, zelako kalteak egin dabezan, Jaungoikuak ipinitako legeakaz nortasundu ziranai, menperatzailletasunezko alegiñetan asi ziranak.

Gaurko mundu onek agintaritzazko arloan norkei bidez, goitik berañoko menperatzailletasunaren ekintzan, ain ugari daukazenak.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2013ko Azaroaren 9an

(1) Emen Euskal-Piktoak egon ziran, eta badagoz euren aztarnak arrietan idatzita. (2) Keltiar jendekuntza = civiliación celta. (3) Afrikako Kartago = gaur Tunez dana.

Aizearen guraria

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari leiketa. Bigarren saria



- Noiz arte egongo zara uretan sarturik laztana? Txitxirio bat bezela puztuko zara, urten zaitetz eta areagaz jolastu daigun.

- Bai amama, oraintxe noa.

Aizea bederatzi urteko neskatilla zan, ondartzara joatea asko gustatzen jakon eta batez be olatuetan saltoka egotea. Egun aretan bere amamagaz doan zan ondartzara, amama ere gustora joaten zan beragaz ondo esanekoa eta begirune izan zalako.

Aizearen amamak bainu-oial andia artu, neskatoari ondo legortzen lagundu eta esan eutson:

- Ez zara konturatu? Lau katu baino ez gara ondartzara osoan eta ondartzaina ere joatekotan dago maitetxo.

- Baina amama,- erantzun eutson neskatoak mimoti-eguzkiak oraindik berotzen dau eta itxasoko ura epel-epel dago. Nik amama itxas-lamia izan gura neuke, ainbat atsegin ditut olatuak...

- Ah, Bai? Ba, etzan zaitetz bainu-oial gainean eta sagar au jaten dozun bitartean nik egingo zaitut itxas-lamia baina begiak itxita eta tranpa egin barik.

- Benetan amama? - —esan eban Aizeak gogoa beraturik- —ez kezkatu, zuk esan arte ez ditut begiak zabalduko.

Amamak Aizeari beste oial bategaz gerritik beera estali eutson eta bere neskatilari asko gustatzen jakon abestia abesten bitartean anak laztantzen asi jakozan. Neskatoak lasaiaren lasaiaz loak artu eban eta denbora galdu barik, amamak inguruko area pillatuz, ondarezko arrain-bustan eder bat egin eutson. Amaitu ebanerako aizea lo-zorroan egoan. A bai ikuspegi ederra! Bere neskatoa gezurrezko itxas-lamintxo bihurturik. Bere arte-lana amaitu eta areaz beterik egonez gero neskatoa lo egoan bitartean ur-bazterrera eskuak garbitzeko urbildu zaan. A bai uraren gozamina!

- Nire itxas-lamia lasaitzen dan bitartean oinak uretan murgilduko ditut pentsatu eta egin eban amamak.

- Aizu, aizu neska! Nigaz murgildu gura dozu itxasoan?

- Ez amama, oso nekatuta nago- —erantzun eban Aizeak begiak zabaldu barik.

- Amama? Ni ez naz zure amama, ni Marina naz, ondartzara onetako itxaslamia.

Aizeak, izualdi aundi batez jesarri zan begiak zabalik eta leenengo ikusi ebana bere areazko arrain-bus-

tan ederra zan baina bere ondoan egoanaz ago-zabalik geratu zan. Begiak ondo igurtzen, barriro begiratu eta... Bai, bere ondoan jesarrita egoan neskatilla, ez zan neska arrunta, berak bezelako arrain-buztan ederra eukan baina neska aren buztana ez zan ondarrezkoa arrainarena baino, mugikorra, dirdiratsu... A bai buztan ederra!

- Ene ama! Itxas-lamia bat. Egiazkoa zara?- Esan eban Aizeak bildurturik.

- Ez zaitetz bildurtu neska. Len, uretan egon zaranean zure inguruan egon naz uger-egiten baina ez zara konturatu naiz eta nik zugaz jolastu guraz

-Baaai?- —esan eutson Aizeak- baina nik ez zaitut ikusi

- Azalduko deutzut polita- erantzun eutson Marinak- inork ezin gaitu ikusten baina zure eskuturra begira eta nik ipinitako alga miregarrizko eskumutur bat ikusiko dozu. Orrekin elkar ikusiz gainera legorretik ere ibili gaitkez eta nik zure guraria entzun dodanean zu benetazko itxas-lamia biurtzea pentsatu dot, zer? murgiltzen animatzen zara?

- Baaai!!- —erantzun eutson Aizeak pozez beterik, eta aitearen egin orduko biak urperatu ziran arrain-bustan eder-ederraz eta filigranak egiten olatu artean jolasaren -jolasaz gosetu ziran eta Marinak Aizeari galdetu eutson:

- Zer gurago dozu askaltzeko laguntxo, bokartarik, txirlak ala izkirak? Emen danetariko daukagu, zuk gura dozuna aukeratu eta jan eizu, berriagorik ez dozu ez inoiz ez inon jango.

- Zeeer? Niri ez jat itxaskirik gustatzen, ez arrainik ez eta gitxiago gordiñik. Au nazka!!

AMAMAAAAA!!!

- Zer dozu laztana?- galdetu eutson amamak keskaturik- —emen nago zure ondoan, amesgaiztoren bat?... Ori bai eskumutur polita! Leen ez deutzut ikusi, orreelako algak ez dira emendik ikusten, non aurkitu dozuz?

- Ortik amama- erantzun eutson Aizeak arriturik, ezer ez ulertzen eta larritasunez esaten:

- Amama, oso polita da egin deustazun arrain-bustana baina nire anak politagoak dira ezta?

- Bai maitetxo, askoz politagoak- erantzun eutson amamak arri eta zur gelditzen- Baina, Zuk ez zenduan itxas-lamia izan gura?

- Txantxetan esan deutzut amama!- Erantzun eutson bere eskuturrean eukan algazko eskumuturrekoa estuturik begiratzen.

Palmi Merino "Urdiñe"



IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI~IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XVII.



EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, munduko gizarte onen on ikuski-zunerako, aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz artetik urtetea, gatz egingo jaku.

Ikusten dogulako alde batetik: Jainkoaren legeakaz bereztutako mundu au eta bere izatasun fisikoan eurekin guztiz mugatuta egonda, guzurrea guzurragaz bakarrik zentzutu⁽¹⁾ leikelako, norkeriaren asmatzailleak euren xautzailletasunaren⁽²⁾ lapurrezko maltzurkerian bizitzeko, egin bear dabezan ainbeste lapurketa ta naaskerizko ekintzakin noraiño eldu leikezan, geiago,

gaur ikusten dogunean, Beren legearen mugako deiadar guztiak biztuta dagozela, bizitza amiltegiaren⁽³⁾ ertzean kokatu dabelako.

Bestetik: norkerizko alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunetan, baita jakintzan be, zentzunezkoak ez diran naastukerizko lokatzartetan sartzen gaituelako, gure nortasunaren ardurazko denborak bizitz onetan, egiaren benetako adierazpen onak ikusi eziñik edo igarri barik igarotzen dirala, eta beren ondorioz, zentzun gabeke-
rizko ulermenean irauten dogu aurrera.

Zer egin ?.

Gure Euskal gogoko baitan zikinduta daukaguzan irteteko argibideak, zentzunez garbitu eta

(1) *Guzurragaz zentzutu = guzurrean zetzututeko.* (2) *Xautzaille = derroche, expendedor, gatzador, consumidor, despilfarrador.*

(3) *Amiltegia = precipicio o despenadero.*



geiago arduratu, Euskalerrriaren gizarteko nortasunak ordezkartzarako, edo eragille izateko daukan eskubideekin.

Gai-mundu onetan norkeriaren bear-kuntzazko alegiñetatik kanpo, nortasunaren zentzunezko ekintza onak bakarrik ekarri leukiezelako askatasunaren pakezko orekak.

A ta guzti urrun joan dira oraingoan, norkeriaren batzangotasunezko alegiñetan dabizenak, maltzurtasunezko edozein erakaz jabetu diralako danon ordain-zor eskubidearen ardurarekin.

Norkeriz bizi gure dabenak, bizitzeko bear doguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako, beti aurreratatu dabe oinkada bat, munduko gizarte onek bere alkartasunerako emon bear dabezan aurrerako oinkadak emon orduko, eta orregaitik joan dira oraingoan ain urrun, lotsagizun edo begirune guztia galdu dabelako.

Nora joango ote da errigizarte bat bere aurre-rakuntzazko bizitzari begira, lapurtzazko antolakuntzan egiten dabezan egitamuekin ez bada gai, beren seme-alabak euren ezkontzaren bizitzarako be ezin bada be etxe bat edo ta bizitzeko bear dabena lortu ?.

Eta ez da txarrena ori: neska mutil gazte guzti orreik jopuzko lanean ipinita, ordaintzen dautsien sariekin, iñora edo eurak bizitzeko bear dabezan gauzetara ez zitezkezela sekula elduko premiñan ipintea da⁽¹⁾.

Nungo sasi-jainkoak ote dira orreik, gizaren iraunkortasuna zalantzan ipinteko ?.

Ori bai, gaia ta errigizartearen nortasunezko eskubidetik alde eginda, dan guztia esku bakarretan batzangotu gura dabe, goiko agintaritzatik asi eta danoen ardurak ezereztuta, eurak urre gorrizko txekorraren serbitzuan bizitzeko.

Al izango ete dabe, giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

(1)Premiñan = sueños y necesidades que estan ahí, pero en ningun caso alcanzable para ellos.

Astakerizko ergelkeri oneik noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEEI.

Edestitik zear aurkeztu dodan egoera ondagarritik⁽¹⁾ esan leike, ez dagoela urten biderik, eta ez da egia.

Aukera guztiak gure eskuetan egonda, danok garalako arduradunak, ondameneko estutasun onetatik urteteko antzezleriak.

Askotan esan leike, ipinten dabezan asmakizun txarrak⁽²⁾, eta euren alegiñetan indar geiegi daukielako, ezin dirala geratu edo ta txarrak dirala adierazpendu aitzaki lez, areik eta beren zentzun okerrakaz, ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza barne edo baitazko⁽³⁾ aukera orreitan, edesti guztitik etorri dan giza ta errigizartearen berezko eskubide guztiak za-

palduta, bizi onek mugatuta daukazan bereztasunezko legeakaz topo egin dabelako.

Muga onetara elduta, mundu onen goiko agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza baitak txarto goazela esaten dautsiela, “uste dot, oldozten asita egongo dirala”.

Jainkoaren Legeak egiten dauskun oarpidera⁽⁴⁾ eldu gara, eta beragaz, gogarketaren aldira⁽⁵⁾.

Ze gogapenagaz baiña?

Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun nortasunaren ardurazko giza legetik kanpo itzita, munduko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu⁽⁶⁾ edo azken gaizto baten amaitzen dabil.

Eta beren aurka, beste ainbesteko indarrakin jantzi ziran komunismuaren burutapenak be, norkeri



(1) Ondagarritik = catastrofico/a. (2) Asmakizun txarrak = eta onek, bimilla urte baiño geiago daukaz, nai ta gogortzen asi zaretik 1.683 urte euki. (3) Baitazko = conciencia. (4) Oarpidera = advertencia. (5) Gogarketaren aldira = al momento de reflexión. (6) Abarrikatu = estrellar, hacer trizas.



bidez euren beste ainbesteko kaizar zaleak biurtu ziran lez, oneik be uts galanta egin dabe.

Eta gaur, sasi asmakizunean datozen diruaren batzangotasunezko burutapenai, norberekeria leku guztietatik sartzen jakolako, beste ainbesteko uts galanta egin dau.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?.

Gure giza barrenak edo baitak⁽¹⁾ ixartu eta oartu, Euskalerrriak edesti guztitik dakarren

eten bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguz.

Eta ezinbesteko gogo alegiñean, gure erri miñan, ainbeste zor dautsagun maitasunezko euskerea nortasundu. Len berak, gugaz egin eban antzera.

Euskaldunak or daukagulako nortasunaren izatasunezko altxor aundiena.

Baiña, lerkai eta izkilluaren ilketa barik.

Zorionez, denbora orreik joan dira, eta gauza orreikaz irauten ba dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala da, eurak norkeriz jokatzeke, guk baiño indar eta maisutasun aundia goa daukielako.

Eta euren norkerizko lege-joko orretan, guk bardiñ erantzun ezkeru, munduko gizarte aurrean, daukagun pakezko eta askatasunaren demokrazizko izaera, izutzailenagaitik⁽²⁾ aldatu edo itzuli egiten deuskulako.

Gure etsaiak, ori gure dabe ba.

Gure babeserako ibiltan doguzan izkilluak, eurenak legeztu egiten dabelako.

Orregaitik, eurak gudaren indarragaz al ezin izan dabena, guk gure iñozokeriakaz⁽³⁾ egin daigula gura dabelako.

Guk, Jainkoak ipini euskun legeari begira eta egi osoan, nai ta nai ez jokatu bear dogu.

(1) Baitak = conciencias. (2) Izutzaille = terrorista. (3) Iñozokeriakaz = ingenuidad, necedad, simpleza.

Mundu onetan, gure euskal askatasunezko elburua lortzeko, Jaungoikua ta beren legeak diralako ardatz nagusienak bizitz onetan.

Eta al doguzen alegiñak len bait len egin: gaur gagozan menperatzaillezko nacional katolicismo laterri lapur onetatik urten, gure euskal ordezeko ardurak Jaungoikuaren legez bete daiguzan, beti, mundu onen beste berezko erri guztiekaz batera.

Euskalerrria, mundu ta Europa onen izar aundienetariko bat da.

Ez dau merezi beren seme batzuk arrotasunezko berotasunean, beragaitik egiten dabena egiteko, eta gutxiago beste erbesteko laterriak, bere euskal nortasunean bizitzeko ipinten dautsoezan eragozpideak.

Danok lanpetu bear gara, daukaguzan ordezkarritzazko ardurak bete daiguzan zentzuzko banean.

Alderdikerien gaiñetik edo nai eta alderdietan batuta egon arren, elburu bakar bat bear dogu.

“Euskalerrria edo ta euskadi eta euskerea dira, izadiak daukan legeagaz batera, zaindu bear doguzenak”



Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15ean



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

	5						7	
	9	6		7		4	3	
1			8		6			2
		7	4		8	6		
		5	3		2	7		
3			7		9			4
	8	4		5		2	9	
	1						6	

7	6	8	4	3	2	9	1	5
3	9	1	5	6	7	8	4	2
4	1	8	9	5	2	7	3	6
1	8	7	2	9	3	4	6	5
6	4	5	9	2	7	8	1	3
8	2	1	5	6	7	3	4	9
9	3	7	4	1	8	6	2	5
1	7	3	8	4	6	9	5	2
2	9	6	1	7	5	4	3	8
4	5	8	9	2	3	1	7	6

ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Inazio gure patroia aundia
Jesusen konpainia fundatu
eta duzu armatu ez da
ez etsirik jarriko zai
zunik inolaz aurrean
gaurko egunean
naiz betor Luzifer
deabrua utzirik inperua!
Zure soldaduak dirade aingeruak,
zure gidaria da Jesus aundia;
garaitu ditu
zure konpainuak etsaiak.
Ez dauka Elizak,
ez Euzkalerriak
ez dauka
bildurrik inongo aldetik
Inazio or dago beti
ernai dago armetan
jarria dauka konpainia
txispaz armaturik
bandera zabalik;
gau eta egun
guk guztiok pakea dezagun,
beti gau eta egun
zure guztiok pakea dezagun,
beti gau eta egun



Loiolako Santutegia